8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion boto-eskubideak Batzar Nagusian dituen ordezkarietako edozeinek baliatu ahal izango ditu.

9.- Administrazioen, entitate publikoen eta Partzuergoko agenteen ordezkarien behin-behineko ordezkapenerako, erakundeetako bakoitzean aplikatzekoak diren arauak jarraituko zaie.

10.- Administrazioek, entitate publikoek eta Partzuergoko agenteek edozein unetan aldatu ahal izango dituzte Batzar Nagusietan dituzten ordezkariak; horretarako, ordezkariak izendatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta Partzuergoko Idazkaritzari jakinarazi beharko diote, betiere jakinarazpena hartu dela jasoaraziko duen edozein bitartekoz helarazitako ziurtapen egokiaren bitartez.

11.- Batzar Nagusia eratu eta gehienez bi urteko epean, Nazioarteko Adituen Aholkularitza Batzordea (International Advisory Group) sortuko da. Aholkularitza Batzorde hori nazioartean izen handia duten adituez osatutako posizionamendurako eta konektagarritasunerako aholkularitza-organo bat izango da.

12.- Batzarreko edozein kidek proposatuta, Lehendakariak edozein pertsona edo erakunde Partzuergoko kidea izan edo ez gonbidatu ahal izango du Batzar Nagusiaren bilkuretara, baldin eta gai-zerrenda osatzen duten gaietako edozeinetarako ekarpen interesgarriak egin ditzakeela baderitzo.

11. artikulua.- Lehendakaritza.

1.- Partzuergoko Lehendakaritza Partzuergoko kideen artean hautatuko da, Batzar Nagusiaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin. Inork ez badu gehiengo osoa lortzen, bozketa errepikatuko da Batzar Nagusiko bilkura berean, eta, orduan, boto kopururik handiena lortzen duen pertsona hautatuko da.

2.- Lehendakaritzaren agintaldiak lau urteko iraupena izango du, eta hainbatetan berrautatu ahal izango dute. Hautespenerako dauden baldintza berak beteta ezeztatu ahal izango da izendapena. Lehendakaria ezeztatze eta lehendakari berria hautatzeko, gai-zerrendan puntu bakar hori duen deialdi berezia egin beharko da. Batzar Nagusian dauden boto-eskubideen % 50ek gutxienez eskatu beharko du Batzar Nagusien bilkura hori. Lehendakaria aukeratu zen egunetik 12 hilabete pasa

actualizará anualmente una vez cerrado el ejercicio contable correspondiente al año anterior, y cuando se incorpore al Consorcio un nuevo Agente, según lo establecido en el artículo 38 de los presentes Estatutos.

8.- Los derechos de voto correspondientes a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi serán ejercidos por cualquiera de sus representantes en la Asamblea General.

9.- La suplencia de las personas representantes de las administraciones, entes públicos y Agentes consorciados en la Asamblea General se regirá por las normas aplicables en cada una de sus respectivas entidades.

10.- Las administraciones, entes públicos y Agentes consorciados podrán sustituir en cualquier momento a sus representantes en la Asamblea General, cumpliendo los requisitos establecidos para la designación, comunicándolo mediante la remisión de la oportuna certificación a la Secretaría del Consorcio por cualquier medio que deje constancia de la recepción.

11.- La Asamblea General se dotará en el plazo máximo de dos años desde la constitución del Consorcio de un Comité Asesor Internacional de Personas Expertas (International Advisory Group), que se constituirá como un órgano asesor para el posicionamiento y conectividad global formado por personas expertas de reconocido prestigio internacional.

12.- A propuesta de cualquier miembro de la Asamblea, la Presidencia podrá, según su consideración, invitar a las sesiones a cualquier persona u organización, miembro o no del Consorcio, cuyas aportaciones se consideren de interés para cualquiera de los asuntos que formen parte del orden del día.

Artículo 11.- La Presidencia

1.- La Presidencia del Consorcio será elegida entre los representantes de los miembros del Consorcio en la Asamblea General, por acuerdo de su mayoría absoluta. Si nadie obtuviera dicha mayoría, se repetirá la votación en la misma sesión de la Asamblea General resultando elegida la persona que reúna mayor número de votos.

2.- El mandato de la Presidencia tendrá una duración de cuatro años, siendo posibles sucesivas reelecciones. Con los mismos requisitos que para la elección, podrá revocarse el nombramiento. La revocación y nueva elección deberá celebrarse en una sesión singularmente convocada con ese único punto del orden del día, a petición de, al menos, el 50% de los derechos de voto existentes en la Asamblea General. No podrá promoverse otra revocación de la Presidencia hasta transcurridos, al menos, 12 meses desde la fecha de elección.

arte, gutxienez, ezin izango da Lehendakaritza ezeztatzea eskatu.

12. artikulua.– Lehendakariordetza.

1.– Partzuergoko Lehendakariordetza hautatzeko eta izendapena ezeztatzeko, aurreko artikuluan Lehendakaritzarako ezarritako prozedura, iraupen eta baldintza berei jarraituko zaie.

2.– Lehendakaritza eta Lehendakariordetza ezin izango dira administrazio edo entitate publiko berak Partzuergoan dituen ordezkarien esku egon.

13. artikulua.– Zuzendaritza Batzordea.

1.– Zuzendaritza Batzordea arduratuko da Partzuergoaren kudeaketaz eta zuzendaritzaz.

2.– Zuzendaritza Batzordearen kide izango dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko Sailburuordetza eskudunaren titularra, organo hori zuzenduko duena.

b) Partzuergora atxikitako Administrazio bereko arlo horretako Zuzendaritza eskuduneko titularra, lehena ordeztzen duena haren funtzioetan.

c) Partzuergoko agente bakoitzaren goreneko lerruneko zuzendaritzetako titullarrak, edo horietako edozein ordeztzeko izendatu diren pertsonak.

d) Partzuergoko Zuzendaritza Nagusiko titularra.

e) SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren ordezkaria, betiere Zuzendaritza Batzordeak Hitzarmenaren jarraipena egiteko funtzioak egiten dituztenean, Hitzarmenaren hamargarren klausularen arabera.

3.– Zuzendaritza Batzordeko kide bakoitzak boto bateko eskubidea du.

4.– Zuzendaritza Batzordeak I+G+B-ko Kudeaketa Batzordea izan dezake, arlo horrekin lotzen diren gaitako organo ordezkari gisa. Gai horien artean daude kalitate-arauak, zaintza, karrera profesionala, jardun profesionalaren kudeaketa, ikertzaileen erakarpina eta transferentzia, ikertzaileen sormenaren eta motibazioaren kudeaketa, IPRaren kudeaketa, Compliance, Datuak Babesteko Lege Organikoa, segurtasuna eta konfidentzialtasuna, jokabide-kodeak eta beste legezko baldintza batzuk.

5.– Zuzendaritza Batzordeko edozein kidek proposatuta, Lehendakaritzak edozein pertsona edo erakunde – Partzuergoko kidea izan edo ez– gonbidatu ahal izango du bere bilkuretan parte hartzera, baldin eta gai-zerrenda osatzen duten gaitako edozeinetarako ekarpen interesgarriak egin ditzakeela baderitzo.

Artículo 12.- La Vicepresidencia

1.- La Vicepresidencia del Consorcio será elegida y su nombramiento revocado por el mismo procedimiento, tiempo de duración y requisitos establecidos en el artículo anterior para la Presidencia.

2.- La Presidencia y la Vicepresidencia no podrán recaer en representantes en el Consorcio de la misma administración o ente público.

Artículo 13.- El Comité Directivo

1.- El Comité Directivo es el órgano responsable de la gestión y dirección del Consorcio.

2.- Forman el Comité Directivo:

a) La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de ciencia, tecnología e innovación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, quien presidirá este órgano.

b) La persona titular de la Dirección competente en la señalada materia de la misma Administración de adscripción del Consorcio, quien suple a la primera en sus funciones.

c) Las personas titulares de las direcciones de máximo rango de cada Agente consorciado o quien haya sido designada para sustituirle.

d) La persona titular de la Dirección General del Consorcio.

e) Una persona representante de SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial cuando el Comité Directivo realice funciones de seguimiento del Convenio, conforme a la cláusula Décima del mismo.

3.- Cada miembro del Comité Directivo tendrá derecho a un voto.

4.- El Comité Directivo podrá dotarse de una Comisión de Gestión de la I+D+i, como órgano delegado en temáticas relacionadas con dicha materia, tales como Normas de Calidad, Vigilancia, Carrera Profesional, Gestión del Desempeño Profesional, Captación y Transferencia de Investigadores, Gestión de la Creatividad y Motivación del Personal Investigador, Gestión del IPR, Compliance, LOPD, Seguridad y Confidencialidad, Códigos de Conducta y otros requisitos legales.

5.- A propuesta de cualquier miembro del Comité Directivo, su Presidencia podrá, según su consideración, invitar a participar en sus sesiones a cualquier persona u organización, miembro o no del Consorcio, cuyas aportaciones se consideren de interés para cualquiera de los asuntos que formen parte del orden del día.

14. artikulua.– Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza Nagusia pertsona bakarreko organo bat da Batzar Nagusiak izendatzen duena Lehendakariak proposatuta. Kualifikazio egiaztatua duten profesionalen artean hautatzen da. Bere gain hartzen du Partzuergoaren zuzendaritza eta Partzuergoaren funtzionamendu operatiboaren ardura, baita bertako zerbitzuen eta langileen burutza ere.

15. artikulua.– Batzorde Zientifiko-Teknologikoa.

1.– Batzorde Zientifiko-Teknologikoa aholku-organoa bat da, eta Partzuergoaren edozein gobernu- eta zuzendaritza-organok eskatu ahal izango dizkio akordio eta txosten ez-lotesleak.

2.– Honako kideek osatzen dute Batzorde Zientifiko-Teknologikoa:

a) Partzuergoko Zuzendaritza Nagusiak, batzordeburua izango da.

b) Partzuergoaren zerbitzura dauden langileen artean Partzuergoko arlo zientifiko-teknologikoz arduratzen den pertsona, Zuzendaritza Nagusiak izendatua.

c) Partzuergoaren barruan sortzen diren Unitate Zientifiko-Teknologikoen koordinazioaz arduratzen diren pertsonak.

d) Partzuergoko agente bakoitzeko ordezkari bat. Zentro bakoitzean arlo zientifiko-teknologikoz arduratzen den pertsona izango da edo hura ordezteko izendatu dena.

3.– Zuzendaritza Nagusiak Euskal Unibertsitate Sistemaren barnean hartzen diren unibertsitateetako bakoitza gonbidatuko du ordezkari bat izendatzera Batzorde Zientifiko-Teknologikoko kide izateko –Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen, otsailaren 25ekoaren, 2. artikuluaen arabera–.

4.– Era berean, Zuzendaritza Nagusiak edozein pertsona edo erakunde, Partzuergoko kide izan edo ez, gonbidatu ahal izango du bilkuretara, baldin eta jorratu beharreko gaietako edozeinetarako ekarpen interesgarriak egingo dituela baderitzo. Pertsona horiek hitzarekin baina botorik gabe parte hartuko dute.

5.– Batzorde Zientifiko-Teknologikoko kideek boto-eskubidea izango dute batzordean erabakiak hartu behar direnean, salbu aurreko paragrafoaren arabera bilkuretara gonbidatu diren pertsonak.

16. artikulua.– Industria Batzordea.

1.– Industria Batzordea aholku-organoa bat da, eta Partzuergoaren edozein gobernu- eta zuzendaritza-organok eskatu ahal izango dizkio akordio eta txosten ez-lotesleak.

2.– Industria Batzordeko kide izango dira:

Artículo 14.- La Dirección General

La Dirección General es un órgano unipersonal nombrado por la Asamblea General a propuesta de la Presidencia, seleccionado de entre profesionales de acreditada cualificación. Le corresponde la dirección ejecutiva del Consorcio y la responsabilidad de su funcionamiento operativo, así como la jefatura de sus servicios y de su personal.

Artículo 15.- La Comisión Científico-Tecnológica

1.- La Comisión Científico-Tecnológica será un órgano consultivo de asesoramiento al que, desde cualquiera de los órganos de gobierno y dirección del Consorcio, podrán solicitarse acuerdos e informes no vinculantes.

2.- La Comisión Científico-Tecnológica está compuesta por:

a) La Dirección General del Consorcio, que la preside.

b) La persona responsable en el Consorcio del área científico-tecnológica de entre el personal a su servicio, así designado por la Dirección General.

c) Las personas encargadas de la coordinación de las Unidades Científico-Tecnológicas que se creen en el seno del Consorcio.

d) Una persona representante por cada Agente consorciado, que será la persona responsable científico-tecnológica de cada centro respectivo o quien haya sido designado para sustituirle.

3.- La Dirección General invitará a cada una de las universidades integradas en el Sistema Universitario Vasco, conforme al artículo 2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, a designar una persona representante que formará parte de la Comisión Científico-Tecnológica.

4.- Asimismo, la Dirección General podrá invitar a las sesiones a cualquier persona u organización, miembro o no del Consorcio, cuyas aportaciones se consideren de interés para cualquier de los asuntos que vayan a tratarse. Estas participarán con voz pero sin voto.

5.- Los miembros de la Comisión Científico-Tecnológica tendrán derecho de voto en la misma cuando sea preciso adoptar acuerdos, excepto quienes hayan sido invitados a las sesiones de conformidad con el párrafo anterior.

Artículo 16.- La Comisión Industrial

1.- La Comisión Industrial será un órgano consultivo de asesoramiento al que, desde cualquiera de los órganos de gobierno y dirección del Consorcio, podrán solicitarse acuerdos e informes no vinculantes.

2.- La Comisión Industrial estará compuesta por:

a) Partzuergoko Zuzendaritza Nagusia –batzordeburua izango da–.

b) Partzuergoaren zerbitzura dauden langileen artean Partzuergoko ezagutzaren transferentziaren arloaz arduratzen den pertsona, Zuzendaritza Nagusiak izendatua.

c) Partzuergoaren barruan sortzen diren Merkatuko Unitateen koordinazioaz arduratzen diren pertsonak.

d) Partzuergoko agente bakoitzeko ordezkari bat. Zentro bakoitzean industria-arloaz arduratzen den pertsona izango da edo hura ordezteko izendatu dena.

3.– Zuzendaritza Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatzen diren, berezko nortasun juridikoa duten eta irabazi asmorik ez duten kluster-erakundeen presidentziak gonbidatuko ditu Industria Batzordeko kide izango diren ordezkari bana izendatzera.

4.– Era berean, Zuzendaritza Nagusiak edozein pertsona edo erakunde, Partzuergoko kide izan edo ez, gonbidatu ahal izango du bilkuretara, baldin eta jorratu beharreko gaietako edozeinetarako ekarpen interesgarriak egingo dituela baderitzo.

5.– Industria Batzordeko kideek boto-eskubidea izango dute, Batzordean erabaki bat hartu behar denean. Aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, Batzordeko bilkuretan gonbidatu gisa parte hartzen dutenek, ordea, ez dute boto eskubiderik izango.

17. artikulua.– Idazkaritza.

Batzar Nagusiak Partzuergoari atxikitako langile funtzionarioen artean hautatuko du Partzuergoko Idazkaritzaren titularra.

IV. KAPITULUA ESKUMEN ORGANIKOAK

18. artikulua.– Batzar Nagusiarenak.

1.– Batzar Nagusiari dagokio:

a) Partzuergoko Lehendakari eta Lehendakariordetzako titularra hautatzea eta ezeztatzea.

b) Zuzendaritza Nagusiko titularra hautatzea eta haren kontratua bertan behera uztea hautatu aurretik, Lehendakariak proposamena egin beharko du.

c) Partzuergoari atxikitako langile funtzionarioen artean hautatzea eta ezeztatzea Idazkaritzaren titularra.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari igorri beharreko aurrekontu-aurreproiektua eta kontu orokorra onartzea haren aurrekontuen eta kontuen barnean hartzeko.

a) La Dirección General del Consorcio, que la preside.

b) La persona responsable en el Consorcio del área de transferencia del conocimiento de entre el personal a su servicio, así designado por la Dirección General.

c) Las personas encargadas de la coordinación de las Unidades de Mercado que se creen en el seno del Consorcio.

d) Una persona representante por cada Agente consorciado, que será la responsable industrial de cada centro respectivo o quien haya sido designada para sustituirle.

3.- La Dirección General invitará a las respectivas Presidencias de las organizaciones clúster que cuenten con personalidad jurídica propia, carezcan de ánimo de lucro y radiquen en la Comunidad Autónoma de Euskadi, a designar un representante que formará parte de la Comisión Industrial.

4.- Asimismo, la Dirección General podrá invitar a las sesiones a cualquier persona u organización, miembro o no del Consorcio, cuyas aportaciones se consideren de interés para cualquiera de los asuntos que vayan a tratarse.

5.- Los miembros de la Comisión Industrial tendrán derecho de voto en la misma cuando sea preciso adoptar acuerdos. No tendrán derecho de voto quienes participen en las sesiones de la Comisión como invitados conforme a la previsión del párrafo anterior.

Artículo 17.- La Secretaría

La persona titular de la Secretaría del Consorcio será elegida por la Asamblea General de entre el personal funcionario adscrito al Consorcio.

CAPITULO IV COMPETENCIAS ORGÁNICAS

Artículo 18.- De la Asamblea General

1.- Corresponde a la Asamblea General:

a) La elección y revocación de las o los titulares de la Presidencia y Vicepresidencia del Consorcio.

b) La elección y desistimiento del contrato respecto a la persona titular de la Dirección General. Para la elección deberá existir previa propuesta de la Presidencia.

c) La selección y revocación de la persona titular de la Secretaría del Consorcio, de entre el personal funcionario adscrito al mismo.

d) La aprobación del anteproyecto de presupuesto y de la cuenta general a remitir a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para su inclusión en los Presupuestos y Cuenta correspondientes.

e) Kontratazio-prozedurei hasiera eman dakien baimentzea, kontratuaren balio zenbatetsia 500.000 eurotik gorakoa denean.

f) Partzuergora beste administrazio publiko batzuk edo sektore publikoan integratutako beste entitate batzuk sar daitezzen onartzea, baita 109/2015 Dekretu bidez arautzen den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko beste ikerketa kooperatiboko zentro batzuk eta beste zentro teknologiko batzuk ere. Era berean, bereiztekuota onartzea, kideetakoren batek Partzuergotik irtetea erabakitzen badu.

g) Estatutuak aldatzea.

h) Barne-araudia onartzea.

i) Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta besterentzea eta horien gaineko transakzioak egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko ondareari buruzko legeriaren arabera.

j) Aurrez Zuzendaritza Batzordeak onartu dituen Partzuergoko Ikerketa Agenda eta Transferentzia eta Merkatu Agenda berrestea.

k) Zuzendaritzako eta kudeaketako postuei dagokien karrera profesionaleko planen eduki komunak onartzea, baita Partzuergoko agenteetako ikertzaileenak ere, Zuzendaritza Batzordearen proposamena kontuan izanik.

l) Garrantzi zientifiko-teknologiko handiena duten eta milioi bat eurotik gorako zenbatekoa duten azpiegitura berezietako inbertsiorik adierazgarrienak berrestea, Estatutu hauen 8.1.b) artikuluan ezarritako baldintzetan, betiere Zuzendaritza Batzordeak onartu ondoren.

m) Partzuergoaren Ikerketa Agendan biltzen ez diren ikerketa-esparruetan Partzuergoko agenteek egindako jarduera berriak onartzea, Zuzendaritza Batzordean aurrez aztertu eta koordinatu ez direnak.

n) Partzuergoak Partzuergokoak ez diren beste administrazio batzuekin edo entitate batzuekin egiten dituen lankidetzak-hitzarmenak onartzea.

o) Lanpostuen zerrenda onartzea eta ordainsarien zenbatekoa finkatzea ez dira inola ere gaitutako atxikitako administrazio lanpostu baliokideetarako ezarritako ordainsariak.

p) Aholkularitza-batzordeak edo -organoak eratzea, 10.11 artikuluan aurreikusten denaren modukoa, eta horien osaera, agintea eta funtzioak zehaztea.

q) Partzuergoa desagitea.

r) Partzuergoari dagokion eta Estatutu hauetan Partzuergoaren beste organo bati zehazki esleitzen ez zaion beste edozein egiteko betetzea.

e) La autorización del inicio de los procedimientos de contratación cuando el valor estimado del contrato sea superior a 500.000 euros.

f) La aprobación de la incorporación al Consorcio de otras administraciones públicas o entes integrados en el sector público, así como de nuevos Centros de Investigación Cooperativa y Centros Tecnológicos pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación regulada en el Decreto 109/2015, y de la cuota de separación en el caso de salida del Consorcio por uno de sus miembros.

g) La modificación de los Estatutos.

h) La aprobación de reglamentos internos.

i) La adquisición y enajenación de bienes y derechos y la transacción sobre los mismos, de conformidad con la legislación patrimonial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

j) Las ratificaciones de la Agenda de Investigación y de la Agenda de Transferencia y de Mercado del Consorcio, previamente aprobadas por el Comité Directivo.

k) La aprobación de los contenidos comunes de los planes de carrera profesional relativa a los puestos de dirección y gestión, así como del personal investigador de los Agentes consorciados, previa propuesta del Comité Directivo.

l) La ratificación de las inversiones más relevantes en infraestructuras singulares por ser las de mayor importancia científica-tecnológica y que, en todo caso, superen el importe de un millón de euros, en los términos establecidos en el artículo 8.1, b) de los presentes Estatutos, previamente aprobadas por el Comité Directivo.

m) La aprobación de la actividad consorciada nueva de los Agentes consorciados en ámbitos de investigación no recogidos en la Agenda de Investigación del Consorcio, que hubiere sido previamente analizada y coordinada en el Comité Directivo.

n) La aprobación de los convenios de colaboración que celebre el Consorcio con otras administraciones o entidades no consorciadas.

o) La aprobación de la relación de puestos de trabajo, con la fijación de la cuantía de las retribuciones, que en ningún caso podrán superar las establecidas para puestos de trabajo equivalentes en la administración de adscripción.

p) La constitución de comités u órganos asesores, como el previsto en el artículo 10.11, determinando su composición, mandato y funciones.

q) La disolución del Consorcio.

r) Toda aquella otra función que correspondiendo al Consorcio no se encuentre expresamente atribuida a otro órgano del mismo en los presentes Estatutos.

2.- Aurreko zenbakian ezarritako eskumenetan, eta Batzar Nagusian gairen bat tratatzeko aurrez Zuzendaritza Batzordeak egindako proposamen bat egon behar duenean, Batzar Nagusiak erabakiak hartuko ditu proposamen horien edukia, guztiz edo zati batean, aldatu edo zuzendu gabe; horrenbestez, Zuzendaritza Batzordeak egindako proposamenaren alde edo aurka bozkatzera mugatuko da.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearena

Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen eskumena da:

a) Partzuergoaren Ikerketa Agenda eta Transferentzia eta Merkatu Agenda onartzea eta Batzar Nagusiari berrets ditzan proposatzea.

b) Partzuergoaren kudeaketa-plana onartzea, Zuzendaritza Planak proposatuta, eta Batzar Nagusiari urtero kudeaketa-planaren berri ematea.

c) Partzuergoaren, Unitate Zientifiko-Teknologikoen eta Merkatu Unitateen jarduera gainbegiratzea, Zuzendaritza Nagusiaren deskarguen bitartez.

d) Zuzendaritzako eta kudeaketako postuei dagokien karrera profesionaleko planen eduki komunak Batzar Nagusiari proposatzea, baita Partzuergoko agenteetako ikertzaileen ere.

e) Garrantzi zientifiko-teknologiko handiena duten eta milioi bat eurotik gorako zenbatekoa duten azpiegitura berezietako inbertsiorik adierazgarrienak aztertzea, koordinatzea eta onartzea –Estatutu hauen 8.1.b) artikuluan ezarritako baldintzetan–, eta, gero, Batzar Nagusiari berrets ditzan proposatzea.

f) Partzuergoaren Ikerketa Orokorreko Agendan biltzen ez diren ikerketa-esparruetan Partzuergoko agenteek egiten duten jarduera berria aztertzea eta koordinatzea, eta Batzar Nagusiari jarduera hori onar dezan proposatzea.

g) Hirugarren batzuek Partzuergoari eskatzen dizkieten zerbitzuak edo proiektuak Partzuergoko agenteei esleitzea eta haiek koordinatzea eta kudeatzea ondorio horretarako, Zuzendaritza Batzordeak zerbitzu edo proiektu horiek tramitatzeke eta Partzuergoko agenteen artean esleitzeko prozedura arautuko duen barneko araudia onartu ahal izango du.

h) Partzuergoak Estatutu hauetan definitutako jardun-esparruetan bultzatzen dituen sustapen-politikak gauzatzea.

i) Partzuergoaren markaren eta horren erabileraren jarraibide orokorrak onartzea.

j) Unitate Zientifiko-Teknologikoak eta Merkatu Unitateak sortzea eta horien koordinatzaileak izendatzea.

2.- En las competencias establecidas en el número anterior en las que para su tratamiento en la Asamblea General deba existir una previa propuesta formulada por el Comité Directivo, aquella adoptará los acuerdos sin modificar, enmendar o alterar, total o parcialmente, el contenido de dichas propuestas limitándose, por lo tanto, a votar a favor o en contra de la propuesta realizada por el Comité Directivo.

Artículo 19.- Del Comité Directivo

Es competencia del Comité Directivo del Consorcio:

a) La aprobación de la Agenda de Investigación y la Agenda de Transferencia y de Mercado del Consorcio, proponiendo su ratificación a la Asamblea General.

b) La aprobación del plan de gestión del Consorcio, a propuesta de la Dirección General, dando cuenta anualmente a la Asamblea General.

c) La supervisión de la actividad del Consorcio, de las Unidades Científico-Tecnológicas y de las Unidades de Mercado, a través de los descargos de la Dirección General.

d) La propuesta a la Asamblea General de los contenidos comunes de los planes de carrera profesional relativa a los puestos de dirección y gestión, así como del personal investigador de los Agentes consorciados.

e) El análisis, coordinación y aprobación de las inversiones más relevantes en infraestructuras singulares por ser las de mayor importancia científica-tecnológica y que, en todo caso, superen el importe de un millón de euros, en los términos establecidos en el artículo 8.1, b) de los presentes Estatutos, proponiendo su ratificación a la Asamblea General.

f) El análisis y coordinación de la actividad nueva de los Agentes consorciados en ámbitos de investigación no recogidos en la Agenda de Investigación general del Consorcio, proponiendo su aprobación a la Asamblea General.

g) La coordinación, gestión y adjudicación a los Agentes consorciados de servicios o proyectos que soliciten terceros al Consorcio. A tal efecto, el Comité Directivo podrá aprobar la normativa interna correspondiente para regular el procedimiento de tramitación y adjudicación de dichos servicios o proyectos entre los Agentes consorciados.

h) La ejecución de las políticas de fomento que promueva el Consorcio en sus ámbitos de actuación definidos en los presentes Estatutos.

i) La aprobación de las directrices generales de la marca del Consorcio y el uso de la misma.

j) La creación de las Unidades Científico-Tecnológicas y de Mercado y la designación de sus coordinadores.

k) Partzuergoak foroetan edo erakundeetan izan beharreko presentzia eta ordezkaritza definitzea.

l) Komite edo batzorde delegatuak edo exekutiboak eratzea, 13.4 artikuluan aurreikusten denaren modukoa, eta horien osaera, agintea eta funtzioak zehaztea Zuzendaritza Batzordeak bere funtzioetako batzuk komite edo batzorde delegatu edo exekutibo horietan eskuordetu ahal izango ditu.

m) Hitzarmenaren jarraipena egitea, eta, horretarako, hitzarmena bete dadin zaintzea, haren garapenean sor daitezkeen zalantzak eta auziak ebaztea eta hobetzeko eta eraginkortasuna areagotzeko komenigarriak izan daitezkeen ekimenak proposatzea.

20. artikulua.- Lehendakaritza.

Lehendakaritza funtzio hauek beteko ditu:

a) Partzuergoa ordezkatzeko jardura orokorraren garapenean eta orotariko negozio juridikoetan eta organismo publiko edo pribatuaren aurrean, betiere Zuzendaritza Nagusiari, Partzuergoaren kontratazio-organo den aldetik, esleitzen zaizkion funtzioak alde batera utzi gabe.

b) Batzar Nagusiaren bilkurak deitzea eta horietan lehendakari gisa jardutea, eta, horretarako, sor daitezkeen berdinketak bere kalitateko botoarekin ebaztea eta hartutako erabakiak bete daitezkeen zaintzea.

c) Batzar Nagusiari proposatzea Partzuergoko Zuzendaritza Nagusiaren izendapena eta ezeztatena.

d) Partzuergoaren izenean eta ordezkaritzan ekintza judizialak eta administrazio-errekurtsoak baliatzea, eta egiten den Batzar Nagusiaren hurrengo bilkuran horien berri ematea.

21. artikulua.- Lehendakariordetzarena.

Lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du postu hori betegabeko kasuetan, lehendakaria bertan ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, eta hari esleitzen zaizkion funtzioak beteko ditu.

22. artikulua.- Zuzendaritza Nagusiarena.

Zuzendaritza Nagusiak funtzio hauek hartuko ditu bere gain:

a) Partzuergoaren zerbitzuak zuzentzea, zerbitzu horien eta haien langileen burutza bere gain hartuz.

b) Partzuergoaren kudeaketa-plana lantzea eta Zuzendaritza Batzordeari onar dezala proposatzea, baita hura gauzatzea ere.

c) Kontratuak egitea Partzuergoaren izenean eta ordezkaritzan, eta kontratazio-organo gisa jardutea, Batzar Nagusiak prozeduraren hasiera onartu ondoren, kontratuaren balioa 500.000 eurotik gorakoa dela zenbatesten denean.

k) La definición de la presencia y representación del Consorcio en foros o instituciones.

l) La constitución de comités o comisiones delegadas o ejecutivas, como la prevista en el artículo 13.4, determinando su composición, mandato y funciones. El Comité Directivo podrá delegar algunas de sus funciones en estos comités o comisiones delegadas o ejecutivas.

m) El seguimiento del Convenio, velando por su cumplimiento, resolviendo las dudas y controversias que pudieran surgir en su desarrollo y proponiendo cuantas iniciativas fueren convenientes para su mejora y eficacia.

Artículo 20.- De la Presidencia

La Presidencia ejercerá las siguientes funciones:

a) La representación del Consorcio en el desarrollo de su actividad general, así como en toda clase de negocios jurídicos y ante organismos públicos o privados, sin perjuicio de las funciones atribuidas a la Dirección General como órgano de contratación del Consorcio.

b) La convocatoria y presidencia de las sesiones de la Asamblea General, resolviendo los empates que se produzcan con su voto de calidad y velando por el cumplimiento de los acuerdos adoptados.

c) La propuesta a la Asamblea General del nombramiento y desistimiento de la Dirección General del Consorcio.

d) El ejercicio de acciones judiciales y recursos administrativos en nombre y representación del Consorcio informando a la Asamblea General en la primera sesión que tenga lugar.

Artículo 21.- De la Vicepresidencia

La Vicepresidencia sustituirá a la Presidencia en los casos de vacante, ausencia o enfermedad ejerciendo las funciones que esta tiene encomendadas.

Artículo 22.- De la Dirección General

La Dirección General asumirá las siguientes funciones:

a) La dirección los servicios del Consorcio, ostentando su jefatura y la del personal del mismo.

b) La elaboración del plan de gestión del Consorcio, proponiendo su aprobación al Comité Directivo, así como la ejecución del mismo.

c) La celebración de contratos en nombre y representación del Consorcio, ejerciendo de órgano de contratación, previa autorización de la Asamblea General del inicio del procedimiento cuando el valor estimado del contrato fuere superior a 500.000 euros.

- d) Aurrekontua prestatzea, Batzar Nagusiak aurreproiektu gisa onar dezan, eta, ondoren, onartzen den aurrekontua gauzatzea.
- e) Partzuergoaren, Unitate Zientifiko-Teknologikoen eta Merkatu Unitateen jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta jarraipenaren eta ebaluazioaren berri ematea Zuzendaritza Batzordeari.
- f) Batzar Nagusiko bilkuretan hitzarekin baina botorik gabe parte hartzea eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretan hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.
- g) Batzorde Zientifiko-Teknologikoen eta Industria Batzordearen bilkurak deitzea eta horietan lehendakari gisa jardutea, eta sortzen diren berdinketak kalitateko botoarekin ebatzea.
- h) Partzuergoaren organoen erabakiak eta ebazpenak gauzatzea eta horiek zehazki eskuordetzen dizkieten funtzioak bere gain hartzea.
- i) Partzuergoko langileak zuzentzea eta, oro har, barne-araubidea aplikatzea eta betetzea.

23. artikulua.- Batzorde Zientifiko-Teknologikoa.

1.- Batzorde zientifiko-teknologikoak funtzio hauek hartuko ditu bere gain:

a) Partzuergoaren Ikerketa Agenda lantzeko eta garatzeko proposamenak egitea eta aholkularitza eskaintzea, Partzuergoko agenteen espezializazioaren arabera.

b) Unitate Zientifiko-Teknologikoen lanaren jarraipena egitea eta Zuzendaritza Batzordeari horien egitekoari buruzko aholkuak ematea.

2.- Unitate Zientifiko-Teknologikoak eratu ahal izango dira lantaldeak lehentasunen arabera artikulatzeko eta koordinatzeko, baita Partzuergoaren Ikerketa Agenda azpibanatzen den sektoreko esparruen arabera artikulatzeko eta koordinatzeko ere.

3.- Zuzendaritza Batzordeak sortuko ditu unitateak, Batzorde Zientifiko-Teknologiakoak proposatuta. Sortzen den unitate bakoitzak koordinatzaile bat izango du, eta koordinatzaile horrek sustatu eta zuzenduko du unitatearen jardura. Horien parte izan daitezke Partzuergoko agenteak, haien espezializazioaren arabera. Unitatean parte hartzen duten Partzuergoko agenteek izendatzen duten pertsonetako batek –horien artean hautatuko denak– beteko du koordinazioaren funtzioa.

24. artikulua.- Industria Batzordearena.

1.- Industria Batzordearen egitekoak izango dira:

a) Partzuergoaren Transferentzia eta Merkatu Agenda lantzeko eta garatzeko proposamenak egitea eta aholkularitza eskaintzea, Partzuergoko agenteek sortuta.

d) La elaboración del presupuesto para su aprobación como anteproyecto por la Asamblea General y la posterior ejecución del presupuesto que resulte aprobado.

e) El seguimiento y evaluación de la actividad del Consorcio, de las Unidades Científico-Tecnológicas y de las Unidades de Mercado, dando cuenta de ello al Comité Directivo.

f) La participación con voz y sin voto en las sesiones de la Asamblea General y con voz y voto en las del Comité Directivo.

g) La convocatoria y presidencia de las sesiones de la Comisión Científico-Tecnológica y de la Comisión Industrial, resolviendo los empates que se produzcan con su voto de calidad.

h) La ejecución de los acuerdos y resoluciones de los órganos del Consorcio y la asunción de las funciones que éstos le deleguen expresamente.

i) La dirección del personal del Consorcio y, en general, la aplicación y cumplimiento de su régimen interior.

Artículo 23.- De la Comisión Científico-Tecnológica

1.- La Comisión Científico-Tecnológica asumirá:

a) La realización de propuestas y el asesoramiento en la elaboración y desarrollo de la Agenda de Investigación del Consorcio según la especialización de los Agentes consorciados.

b) El seguimiento del trabajo de las Unidades Científico-Tecnológicas y el asesoramiento sobre su función al Comité Directivo.

2.- Podrán crearse Unidades Científico-Tecnológicas con la finalidad de articular y coordinar los grupos de trabajo por prioridades, así como por los ámbitos sectoriales en que se subdivide la Agenda de Investigación del Consorcio.

3.- La Unidades se crearán por el Comité Directivo, a propuesta de la Comisión Científico-Tecnológica. Cada Unidad que se cree contará con una persona coordinadora que promueva y dirija su actividad, pudiendo formar parte de cada una de ellas los Agentes consorciados en función de su especialización. Desempeñará la función de coordinación una de las personas designadas por los Agentes consorciados partícipes en la Unidad, a elección entre ellas.

Artículo 24.- De la Comisión Industrial

1.- La Comisión Industrial asumirá:

a) La realización de propuestas y el asesoramiento en la elaboración y desarrollo de la Agenda de Transferencia y de Mercado del Consorcio generado por los Agentes consorciados.

b) Merkatu Unitateen lanaren jarraipena egitea eta Zuzendaritza Batzordeari horien funtzioari buruzko aholkuak ematea.

2.- Merkatu Unitateak sortu ahal izango dira, lantaldeak lehenetsuen arabera eta Partzuergoko Transferentzia eta Merkatu Agendaren edukien arabera artikulatzeko eta koordinatzeko.

3.- Zuzendaritza Batzordeak sortuko ditu unitateak, Industria Batzordeak proposatuta.

Sortzen den unitate bakoitzak koordinatzaile bat izango du, eta koordinatzaile horrek sustatu eta zuzenduko du unitatearen jarduerara. Horien parte izan daitezke Partzuergoko agenteak, haien espezializazioaren arabera. Unitateen parte hartzen duten Partzuergoko agenteek izendatzen duten pertsonetako batek –horien artean hautatuko denak– beteko du koordinazioaren funtzioa.

25. artikulua.- Idazkaritzarena.

1.- Idazkaritza da Partzuergoaren administrazio-organoa.

2.- Idazkaritzak bere eginkizunak beteko ditu, boto eskubiderik gabe, Partzuergoko kide anitzeko organo guztietan. Zerrenda hau inolako muga izan gabe, kide anitzeko organoetako bilkuren deialdiak prestatu eta kudeatuko ditu, organo horien lehendakaritzak aginduta, bilkura bakoitzeko quoruma egiaztatuko du, organoetako bakoitzera bertaratzen diren kideen boto-eskubidea egiaztatuko du, boto-eskuordetzeak jaso eta zainduko ditu, eta bilkuren akta idatziko du, aktan islatuko ditu bilkuraren lekuan, iraupenaren, bertaratuen eta gai-zerrendaren nondik norakoak, eta barnean hartuko du puntu bakoitzaren eta sortutako eztabaiden laburpen deskribatzailea eta bozketen emaitza. Hartutako erabakien ziurtagiriak jaulkiko ditu, Lehendakaritzaren oniritziarekin. Horrez gain, Partzuergoaren berezko dokumentuak zainduko ditu eta artxibategiak kudeatuko ditu. Partzuergoko organoen aholkularitza juridikoa egikaritu du, eta egiteko horiek guztiak betetzeko behar besteko baliabideak emango zaizkio Idazkaritzari.

V. KAPITULUA

GOBERNU-ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

26. artikulua.- Bilkurak egiteko lekua.

Partzuergoaren organoen bilkurak, bai ohikoak, bai ezohikoak, haren egoitzan egingo dira. Salbuespen gisa, Partzuergoko agenteen egoitzetan egin ahal izango dira.

27. artikulua.- Bilkuren aldizkakotasuna.

b) El seguimiento del trabajo de las Unidades de Mercado y el asesoramiento sobre su función al Comité Directivo.

2.- Podrán crearse Unidades de Mercado con la finalidad de articular y coordinar los grupos de trabajo por prioridades, así como por los contenidos de la Agenda de Transferencia y de Mercado del Consorcio.

3.- Las Unidades se crearán por el Comité Directivo, a propuesta de la Comisión Industrial.

Cada Unidad que se cree contará con una persona coordinadora que promueva y dirija su actividad, pudiendo formar parte de cada una de ellas los Agentes consorciados en función de su especialización. Desempeñará la función de coordinación una de las personas designadas por los Agentes consorciados participen en la Unidad, a elección entre ellas.

Artículo 25.- De la Secretaría

1.- La Secretaría es el órgano de administración del Consorcio.

2.- La Secretaría ejercerá sus funciones, sin derecho de voto, en todos los órganos colegiados del Consorcio. Sin que esta enumeración suponga limitación, elaborará y gestionará las convocatorias de las sesiones de los órganos colegiados por mandato de quien los presida, comprobará el quorum de cada reunión y los derechos de voto que asisten a los miembros de cada órgano, recabará y custodiará las delegaciones de voto y levantará acta de las sesiones en las que consignará las circunstancias de lugar, tiempo de celebración, asistentes y orden del día, incluyendo un resumen descriptivo del desarrollo de cada punto y de los debates que tuvieren lugar, con el resultado de las votaciones celebradas. Emitirá certificaciones de los acuerdos alcanzados con el visto bueno de la Presidencia y custodiará los documentos propios del Consorcio, gestionando sus archivos. Ejercerá, el asesoramiento jurídico a los órganos del Consorcio, dotándose a la Secretaría de los medios suficientes para el desempeño de los señalados cometidos.

CAPITULO V

FUNCIONAMIENTO DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO

Artículo 26.- Lugar de celebración de las sesiones

Las sesiones de los órganos del Consorcio, tanto ordinarias como extraordinarias, se celebrarán en su sede. Con carácter excepcional, podrán celebrarse en las respectivas sedes de los consorciados.

Artículo 27.- Periodicidad de las sesiones

